

Santa Ana Eguna ospatu zen goizetik

Astelehenean, goizeko 11:00etan, hasi ziren ospakizunak meza eta dantzarekin

Urtero legez, uztailaren 26an, astelehenean, Santa Ana eguna ospatzeko gogoekin jaiki ziren Lasarte-Oriako herritarrek. Gainera, eguraldi aurreikuspenak asmatu ez, eta eguzkia lagun izan zuten goizetik. Tenperatura ederra benetan kalera ateratzeko jai eguna ospatzera.

Goizean, 11:00etan Brigitarren komentuko kaperan urtero bezala, Xabier Andonegik Santa Ana eguneko meza ospatu zuen. Jende ugari bildu zen bertan, eta Erketzeko kideek dantzatu zuten.

Meza amaituta, komentuko kanpoaldean, Ttakunek antolatutako lunch eder bat zuten zain. Azeitunak, patatak, pastak... eta ondo irensteko ardo goxua, beltza... denetarik aukeran.

Santa Ana karkaba

Tripak ondo beteak, udaletxe ondoan dagoen Santa Ana Karkabara abiatu ziren bildu-

takoak. Urteroko ohiturari jarraiki dantzatzeko ordua zen. 12:00etan puntu-puntu, elizako kanpai-hotsekin batera hasi ziren agurra dantzatzeko dantzariak.

Bildutako herritarrek txalo zaparrada ederra eskaini zieten dantzariari, eginiko saioa eskertuz.

Aurten, parodia musikala

Goizeko 11:00etan hasi eta gauerdiate iraun zuten Santa Ana Eguneko ospakizunak. TXINTXARRIKO zenbaki honetako erdiko orrietara joz gero, parodiaren nondik-norakoak jakiteko aukera izango duzue. Aurten gainera berrikuntzez beteta etorri da urteko gaien errepaso. Aktore eta parte-hartzaile berriak biltzeaz gain, antolatzailerek parodia musikala aurkeztu zuten Isla plazan. Dena den, abokatua ahalegin handiak egin arren, akusatua sutara bidali zituen Basajaunak. •



Santa Ana eguna ospatzeko goizean, meza, luncha eta agurra Karkaban egin zuten urtero bezala .

ALBISTEA /2

Tourra ikustera
Tourmaletara
joandako
lasarteoritarrekin
bildu ginen bertan

ALBISTEA /6

Herritik igarotzen
den N-1 zatian
pantaila akustikoak
jartzeko eskatu du
PSE-EE alderdiak

Hurrengo
TXINTXARRI
irailaren 6an,
astelehenean
argitaratuko dugu.
Bitartean, opor
ederrak izan!



 **SUGATE**
SUKALDEAK



- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net

Lasarteoriatarrak Tourrean

■ Herritar batzuek hiru aldiz igo zuten bizikletan Tourmaletera ■ Pirinioetara urtero joaten dira Tourreko etapa ikustera ■ Ivan Maioz ez zen La Mongietik pasa bezperan erori zen eta

La Mongieko eski estazioaren ingurua eta Tourmalet-eko gaina ondo ezagutzen du jada lasarteoriatar lagun koadrila batek. Azken hiru urteotan bertan izan dira Tourreko etapa ikusi eta egun batzuek pasatzen. Aurten uztailaren 18tik 22ra egon dira 15 lagun. Hauetako batzuek bizikleta hartu eta hiru egunetan igo dira Tourmaleteko gainera. Lehenengo egunean 85 kilometro egin zituzten eta hiru mendate igo, tartean Aspin eta Tourmalet bera. Gero indarberritzeko La Mongie inguruan jartzen duten txokoa ez da jatekoa eta edatekoa faltatzen.

JON ALTUNA

La Mongie eski estazioaren inguruko zelaietako batean jartzen dute euren "etxetxo" lasarte-oriatarrek. Errekatxo baten ondoan, edaria freskatzeko jartzeko. Ez dago hozkailu hoberik, Pirinioetako mendietatik jaisten den ur hotza baino. Herritarren kanpamendua, zenbait denda eta furgonetek osatzen dute. *Lo gela* bakoitzak eramatzen du, baina sukaldia eta egongela ez dute ezer falta: pare bat su, apalak beharrezkoak gaiak gordetzeko, mahai luzeak, aulkiak, argia eta telebista ere bai Tourreko etapa ikusteko. Argi indarra lortzeko generadorea kanpoan. Beroa egin, euria egin, prest daude datorrenarako.

Sukaldari nagusi Joxan Lasa, izan da urtero bezala, bera arduratu da hamaiketako, bazkari eta afarietaz: paella mariskoarekin, bildotsa burrunzian, okela egosia, bakailaoa pil-pilean, saiheskia, menestra... denetarik dastatu dute lasarteoriatarren *kanpamenduan*. Gau batean *queimada* goxoa ere hartu zuten.

Igandetik ostegunera

Uztailaren 18an, igandean, abiatu ziren Lasarte-Oriatik eguerdian, bidean zerbait jan eta arratsaldean muntatu zituzten bi karpak eta lo egiteko dendak La Mongien. Garaiz joaten dira lekua hartzeko. 2004tik tourra ikustera urtero joan den Jesus Castrok kontatu zigunez ez dira batek bestera etapa ezberdinak ikusten ibiltzen "muntai handia eramatzen dugu, eta muntaketa-desmuntatzea azken finean konplikatu da". Hirugarren aldiz jarraian joan dira La Mongiera eta aurreko urtetatik aukeraturik daukaten tokian jarri dira: "Gustuko

lekua dugu, errekatxo baten ondoan. Horrela ez daukagu hozkailuaren beharrik". Horregatik joan ziren igandean, astelehenean jende gehiago ibiliko zela jakinik, lekua hartzeko.

Asteartean pasatzen zen tourra La Mongie-tik eta astelehenean bakoitzak bere gustukoa egiteko baliatu zuten. Taldeko batzuek ordu batzuk pasa zituzten bizikleta gainean. Tourmalet, Hourquette de Ancizan eta Aspin, Pirinioetako hiru mendate igo zituzten.

Ivan Maioz-en erorketa

Astelehenean, La Mongietik 70 kilometrotara amaitu zen Tourreko etapa, Bagnères de Luchon-en. Hain juxtu Ivan Maioz lasarteoriatarrentzat zoritzarrekoa suertatu zen etapa hori. Erori egin zen Ares-eko mendatean jaisten, helmugatik 40 kilometrotara eta helmugara iritsi bazen ere, hiru saihets zituen hautsita eta hurrengo egunean ez zen atera. Beraz, lasarteoriatarrek ez zuten La Mongie eta Tourmaleten herritarra animatzerik izan, juxtu bezperan erori egin zelako.

Urtero bezala, tourra pasatzen den egunean arkumea burrunzian jarri zuten. "Hori tradizio da jada, Hori jada tradizio bihurtu da, burrunzia lasterketa pasatzen den egunean egiten dugu" kontatu digu Jesus Castrok.

Joxan Lasa sukaldaria bakarrik geratu zen prestatzen, taldeko beste lagun guztiak tropelaren aurretik pasatzen den karabana eta txirindulariak ikustera joan ziren eta. Telebistatik ere ez zuen ikustetik izan Lasak, juxtu pasatzen ari zirela iragarkiak tokatu zirelako. Arratsaldeko 14:00ak inguruan pasa ziren txirindulariak La Mongietik eta ondoren, bazkaldu eta festa egin



La Mongieko zelaietan, errekatxo baten ondoan jarri zuten kanpamendua lasarteoriatarrek.



"Tradizio" bihurtu da ondok lasterketa pasatzen den egunean arkumea burrunzian erretzea.

zuten lasarte-oriatarrek.

Jesus Castrok aitortu zigun Frantziako Tourra pasatzen dela eta, bertan dagoen giroa dela erakargarriena. "Txirindularitza eta zaletasuna aitzakia dira hemen gustura egoteko. Giro oso polita egoten da eta gau batzuetan izaten da parranda eta festa ere. Gero norbera jaikitzen da ahal duen moduan".

Mendiz inguratuta izanik, batzuk irteeraren bat egiteko aprobetxatzen dute. "Bai,

batzuek bizikleta ekartzen dute, beste batzuk ibiltzera joaten dira eta beste batzuk ez dira karpatik mugitzen. Musean egiten dugu, edo bestela hantxe egoten gara kontu kontari, umore onean. Txorakeriak esan eta parra egin. Eta La Mongieko tabernatarra ere joaten gara tarteka zerbait hartzera" aitortu zigun Castrok.

Jende asko joaten zaie karpara, hainbat tokitakoak: "Bai, frantses, belgikar,... denetarik pasatzen da. La Mongieko

gaztetxea dirudi askotan" dio Castrok.

Errekatxora ez ziren soilik sagardo eta zerbeza botilaren bila joan, batzuek, barruak bero, bainatu ere egin ziren errekatxo ur hotzetan. Terapiak ere egin dituzte batzuek, bai-nuetxeetan bezala, ur hotza eta sukaldian berotutakoa erabiliz, batez ere kirola egin eta gero.

Astelehenean bezala, astearte eta asteazkenean ere Tourmaletan izan ziren bizi-



Lasarte-Oriatik La Mongieko eski estaziora Frantziako Tourra ikustera joan den herritar lagun koadrilako batzuek irrifartsu azken egunean. Eguraldi txarra zela eta ez ziren Tourmaletera igo.



Jesus Castro lasai egunkaria irakurriz. Urtero joaten da Pirinioetara.



Argi indar sorgailu bat jartzen dute kanpoan. Horrela gauetan argia eta etapa telebistatik ikusteko aukera dute.



Afalostean quemada musean jokatu bitartean. Edo garagardoa freskatzeko.



Errekako ura oso hotza zegoen.

kleta zaleak. Ostegunean bukatzen zen etapa gainean, baina egun horretan ez ziren igo eguraldi txarrarengatik eta telebistaz ikusi zuten etapa. Asteartean, Saint Marie de Campanetik igo zuten Tourmalet-a eta asteazkenean Luzetik. Beraz sasoiari daudela erakutsi dute. Besteak La Mongie inguruan bueltaren bat eman, futbolean, partxisean edo musean aritu, Castrok kontatu digunez denetarik egi-ten dute.

Zarauz trikitalari eta txirrin-
duzaleak urten ez du joaterik
izan eta ez dute aurreko urte-
tan bezala trikiti doinurik izan.

Etapa telebistatik

Ostegunean Tourmaletoko gai-
lurrean bukatzen zen etapa
baina asteazkenean lainoa,
ekaitza eta euri zaparradak
izan ziren La Mongien. Horre-
gatik ez ziren igo Tourmaletera
etapa ikustera, eta lasai lasai
telebistaz ikusi zuten. Gero
arratsaldean desmuntatu eta

behin La Mongie inguruko auto
ilarak desagertzen hasi zire-
nean gaueko 10ak inguruan
abiatu eta goizaldeko 2etan iri-
tzi ziren Lasarte-Oriara.

Jesus Castro herritarra urte-
ro joaten da Tourrera hiruzpa-
lau egun eta berak kontatu
digu nola ibiltzen diren. "Lau
bat egun joaten gara, beti Piri-
nioetara. Lan kontuengatik
noski. Ez da beti erraza izaten
jai hartzea. Aste erdian toka-
tzen da eta aurten 2004an joa-
ten hasi ginenetatik sei egon

gara. Baina berriak ere animatu
dira. Urtero joaten da lagun
berriren bat. Baten edo bestea-
ren ezagunen bat. Ondo horre-
la jende berria ezagutzen
dugu".

Prestaketa

Aurretik hasten dira irteera
prestatzen. "Aurten sarriago
elkartu gara. Pare bat afari egin
ditugu hitz egiteko. Beste urte
batzuetan ez da hainbeste
izan. Gehiena lotuta daukagu.
Lehenengo aldiz joan ginenean

karpa zuriak erosi genituen,
Joxan Lasak sukaldea, paella-
ontzia eta behar dituen gauza
guztiak eramaten ditu, eta gutxi
gorabehera ez dugu besterik
behar, egun batean elkartu,
menuak erabaki, bakoitzak zer-
bait erosi eta kitto".

Aurten ere ez du euskal txi-
rrindulari batek etaparik iraba-
zi. Castroren ustez "oso zaila
da tourrean etapa bat irabaz-
tea. Aurten Samuel hor ibili da,
baina esperientzia falta izan
zaio". •



Exiquio Perez eta bere lan ixila, ekitadiak grabatzea, izan ziren omenduak.



Hamar urte igaro dira emakume kuadrila martxosoak lehenengoz Parodian parte hartu zuenetik. Horregatik, Takunek omenaldi txikia egin zien.

Musika eta dantza umorearekin nahasiak

■ Herritar ugari bildu zen Isla plazan Parodia ikustera

Doinu ezagunen bertsiotzatzuk entzun ahal izan ziren astelehen gauetan burutu zen Santa Anako parodian.

Izan ere, Santa Anaren eskaerari erantzunez, aurtengo parodian musika, antzerkia eta umorea nahastu baitira.

Urteko gaiak

Rediogenes Sindromepean Etxebete eta Pinotxeta Marditoparne Ponmarpomedio ziren akusatutak.

Atez ateko zabor bilketaren proiektua bertan behera

uztea, TDtarekin edo txakur-oren gorotzekin negoziatzea, alkate aldaketa... izan ziren akusatuei egotzitako karguetako batzuk.

Horretarako, fiskalak bere testiguak deitu zituen. Konstantzia Patxadahandia Ezbetirako edo Afroditara eta Leopardo herritarren kekak ezagutu ahal izan genituen horrela.

Baina ez ziren haien kekak jakin arazi zituzten, bakarrak San Pedro ere jaitsi baitzen herriko jaien egun aldaketa dela eta.

Honetaz gain, hurrengo urteko hauteskundeetarako erabiliko duten kanpaina berezia erakutsi zuen emakume kuadrilak, hala nola, bigarren etxebizitza erosten duenari, BOE bat doan.

Defentsak testigu sorpresa ere aurkeztu zuen, alkatea, Tipulas jauna. Kargua berea izatearen arrazoiak azaldu zituen.

Gauzak horrela, akusatuek eruduntzat hartu zituen Basajaunek eta deabruak oholztan dantza egin ere gero, sutara bota zituen. •



Parodia musikal honetan, San Pedro rap-a abesten eta dantzaten ikusi genuen.



Hauteskundeetarako kanpaina berezia egin zuen emakume kuadrilak.



Atez ateko salmenta eta zabor bilketa ere hizpide izan ziren.



Alkateak, Tipulas jaunak bere izendatzearen arrazoiak azaldu zituen.



Telebista kateetako lehiaketan antzera, akusatuek zutik entzun behar izan zuten Basajaunen nominazioa.



Lasarteoriarrek urteko gertakarien errebaso umoretsua ikusteko gogoia zuten, haatik, Isla plaza bete zen.



TD Tak bikote baten bizitza sexuarekin izan dezakeen eragina jakin genuen.



Eta amaieran, guztiak dantzaten ari zirela deabruak akusatuek eraman zituen. Ostean, Erketz dantza taldeko kideek Sorgin dantza, fandangoa eta arin-arina dantzatu zuten. Suhiltzaileek lan ederra izan zuten, bi akusatuek erre, sua itzali eta ikusleak bustitzen.

Buruntzaldea Igeriketa Kirol taldea, igeri egiten ikasi nahi duten herriko haurrei irekia

Igeriketa taldeak entrenatzaile berria izango du, Borja Apeztegia herritarra

Hiru urte dira Buruntzaldea Igeriketa kirol taldea proiektua martxan jarri zenetik. Orduan, Lasarte-Oria eta Andoaino igeriketa elkarteek bat egin eta eremuko taldea sortu zuten. Haur, zein gaztekoekin lanean dihardute eta emaitza onak lortu dituzte hainbat lehiaketetan. Hurrengo denboraldiari begira berrikuntza bat izango dute, entrenatzailea Borja Apeztegia izango da, orain arte Hernaniko taldeko entrenatzaile lanetan ibilitakoa.



Ruben Villalon eta Borja Apeztegia gazteek, igeriketa munduan murgildu nahi dituzte herriko gazteekin.

TXINTXARRI

Irailetik aurrera Buruntzaldea Igeriketa kirol taldean Borja Apeztegia izango da entrenatzaile lanetan eta Ruben Villalon laguntzaile bezala.

Hurrengo ikasturtea, irailaren 6an hasiko da igeriketa taldearentzat eta eskolari eman nahi diote garrantzia. "Hau dugu elkarte oinarria. Bertan, igeri egiten irakasten eta kirol munduan murgiltzen ditugu haurrak," azaltzen du Borjak.

Eta helburua bakarra da, "umeak igeri egitea gustukoa izatea" gaineratzen digu Rubenek. Izan ere, igeriketa osasuntsua da, diziplina ema-

ten du "eta hazkuntzarentzako ona den kirola dugu" aipatzen du Borjak. Honetaz gain, "elkarkidetzeta eta errespetua sustatzen du".

Igeriketa eskola

Buruntzaldea Igeriketa kirol taldeko arduradunek argi utzi nahi dute euren proiektuaren bitartez "oinarriko gazteak erakusten zaizkiela umei; flotazioa, propulsiotza eta uretan nola sartu: salto mota ezberdinak" adierazi digu Rubenek.

Estilo ezberdinak irakasten dizkiete baina ez entrenamenduko gogorren bitartez, "teknika erakusten diegu igerian ikasten duten bitartean" dio Borjak.

Igerian ikasi nahi?

Infantiletan, Andoain eta Lasarte-Oriako igeriketa elkarteak bat egin zuten Buruntzaldea Igeriketa kirol taldea eratuz. Baina federatuen lehen mailara iristen Hernanikoek ere Buruntzaldeko taldearekin lehiatzen dute.

Pasa den urtean 60-70 ikasle izan zituzten guztira, "Txikienen taldean gehiago egoten dira normalean, gero ikasketak direla medio jendek utzi egiten du" azaldu digu Rubenek.

Lasarte-Orian, zein Andoain taldea eratzea dute amets eta bakoitzak bere herrian entrenatzea.

Igerian ikasi edo kirol honetan trebatu nahi dutenek, irailaren igerilekutik pasa eta Borjataz galdetu beharko dute. Edo bestela, 696506673 telefonoz zembakira deitu eta Rubenengatik galdetu.

Gipuzkoako PSE-EEK Lasarte-Oriatik igarotzen den N-1an pantaila akustikoen ezarpena eskatu dio Foru Aldundiari. Hau da, Loidi Kalean, Oztaranen, Arranbiden, Oriain eta Antxisu bailaran.

Urgentziako neurria

Jose Morcillo, garraio bide azpiegituren komisioko bozeramailea Gipuzkoako Batzar Nagusian "urgentziak zarararen kontrako pantailak ezarzea" eskatu du.

Izan ere, bigarren gerrikoaren eraikuntzaz geroztik, aipatutako kaleetan kutsadura akustikoa handitu eta nabaritu egin baita.

Hau da, "aurrenetik jarriak zeuden pantaila akustikoak eta

N-1 errepidearen alboetan pantaila akustikoak jartzeko eskatu du Gipuzkoako PSE-EEK

geratu diren hutsuneen artean, efektu errebote baten ondorioz engabeko burrunbada utzi du gau eta egunez" gaineratu du.

Bizilagunen kexaren

Aipatutako gune hauetan bizi diren bizilagunen kexak entzun ondoren, Gipuzkoako PSE-EEK, gaia Batzar Nagusiko mahaira eramatea erabaki du.

"Autobiatik oso gertu daude eta hori euren bizi kalite-

tatean eragiten dituen ondorioak argiak dira, bai fisiologikoki eta baita psikologikoki. Efektu kaltegarri argiak eragiten du" adierazi du Morcillok.

Udaletxearen babesa

1996. urtetik dabil Lasarte-Oriako Udala, bizilagunen eta ondorioak jasaten dituzten beste talde batzuekin egoeraren salaketan.

Egun dauden eragozpenak "kutsadura akustikoaren ondo-

rioz larriak dira" azaltzen du Morcillok. Lasarte-Oriako Udala Gipuzkoako Foru Aldundian ospatutako bileretara lagundu ditu bizilagunak, hau baita kompetentzia eta arazoa konpondu dezakeen legezko administrazio bakarra.

"Orain arte hartu diren erabakiak berantiarak eta partzialak izan badira ere, bigarren gerrikoa zabaldu denetik egoerak txarra egin du" gaineratu du Morcillok.

Erresoluzioa

Gipuzkoako Batzar Nagusia Foru Aldundiari ahalik eta azkarren zarararen kontrako pantailak ezartzeko erabakia hartzea agintzen dio "gainerako autobia zatietan egin duten bezala Lasarte-Oriako gune hauetan ere ezarri behar dira" zehazten du Morcillok.

Aurrekariak

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2009ko irailaren 2an, Lasarte-Oria zeharkatzen duen N-1 errepidearen zarararen kontrako pantailak jartzea erabaki zuen Zumaburu eta Sasota azuoetan.

625 metroko enkantera ezarri zuten eta PSE-EEK orain, autobide osoan berdin egitea eskatzen diote Foru Aldundiari. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultur eta Euskararen Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Takun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SSSI13/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@takun.com • Publizitatearen publikazioa: txintxarri@takun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@takun.com, takun@takun.com. Txintxarri ez du bere gain hartzen irizki-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Udako txokoetako jaialdiak kolore eta musikaz beteta

Udako Txokoetako haur eta gaztekoek hiru aste paregabe igaro dituzte. Ekitaldi eta joku ugari egin dituzte eta gauza pila ikusi. Horren adierazle, lehenengo ostiralean eta astelehenean egin zituzten jaialdiak dira. Ostiralean, munduan zehar ibili ziren ertainak; hainbat herrietako dantzak, esaterako Hawai edo Txinakoak, ikusi ahal izan ziren kultur etxean. Astelehenean, berriz, animala desberdinek bete zuten Isla plaza. Etxeko txikiak ikasitako dantzak erakutsi zizkieten gurasoei. •

Herritar ugari bildu zen Santa Brigitaren ohorezko mezan

Santa Brigitaren egunarekin bat etorritz, ostirala goizean Brigitarren komentuan meza ospatu zen.

Herritar ugari bildu zen komentuko kaperan, Munilla, Gipuzkoako gotzainak zuzendutako meza entzuterako. Laguntzaile lanetan, herriko apaizak eta Usurbilekoa egon ziren.

Ama Brigitarren sotana

Munillak Santa Brigitarren irudia zuen sotana zeraman, Brigitar mojak zizelatuak, hain zuzen ere. •



Oharrak

Burutz Azpiko galeper tiraketa

Uztailaren 31n, Burutz Azpi elkarteak Galeper Tiraketa (kaiolan) ospatuko du.

Aurreko urteetan bezala izen-ematea Burutz-Azpi elkartearen bertan egin behar da eguna baino lehen. Tiraketaren ostan, hamaitzekoako gongo da.

Gasolina merkeago Aterpeako txartelarekin

Aterpeak, Lasarte-Oriako Merkatarien elkarteak kanpainan berri jarri du martxan. Honetan, Oriako Allerru gasolindegian desputua bete eta Aterpeako txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, %2ko beherapena izango dute haien ordainketan.

Stock eta Saldoen III. Azoka martxan

Stock eta Saldoen III. Azokan parte hartzeko gonbita egiten die Aterpea merkatarien elkarteak herriko komertzioei.

Azoka berezi hau irailaren 25 eta 26an egingo da,

Michelin Kirol guneko pilotalekuan.

Bertan bere produktua saldu nahi duenak, Aterpearen irudiak jarri behar du kontaktuan, 637 955 030 eta 687 845 623 telefono-zenbakien bitartez, edo itziariurzun@hotmail.com helbidera posta elektronikoki bidalitzeko.

Abuztu udako txokotan plazak

Abuztu udako txokotan plazak osatzeko plazak badaudela jakin arazi nahi du Ttakun Kultur Elkarteak. Interesatuak deitu dezatela 943 371448 telefonora. Taldeak osatzeko plazak soilik direnez, ez dira asko, beraz lehen bailehen deitzea komeni da.

Ola kalea itxita kale Nagusitik

Lasarte-Oria eta Usurbil udalerrien saneamenduko interzепtore orokorreko lanak direla eta, Kale Nagusitik Ola kalerako sarrera itxita egingo da.

Era honetara, Ola kaleko mozketak dela eta, zirkulazio aldaketak egingo dira: Zumaburu auzorako sarrera elizaren ondotik izango da eta auzoaren iteera Eribera kale-tik. Zumaburu kalean kotxeen zentzua aldatu egingo da, beraz.

Kalean zentzuarekin gertatzen den bezala, garajeen sarrerak eta iteera ere zentzuz aldatzen dira.

Orain arte sarrera zena iteera izango da eta iteera zena, sarrera. Alkatetzak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik eta bizilagunen laguntza izango duela dago.

Udal Kirol Gunea itxita

Uztailaren 31, larunbata Udal Kirol Gunea, Mitxelingo gunea, publikoari itxita egingo da.

Egun honetan abonatuak beste udal kirol instalakuntzak edo Buruntzaldekoak erabiltzeko aukera izango dute nahi izanez gero.

Oporrak eta ikasturte berria Emakumeen Zentro Zibikoan

Emakumeen Zentro Zibikoan uztaileko aste honetan 8:00etatik 17:00etara dago irekia, bertara hurbil du eta ezagutu nahi duenarentzat.

Zentroko arduradunek azaldu digutenez, abuztuaren atek itxiko dituzte atsedena hartzeko eta irailaren 1an, oporretatik bueltan, 2010-2011 ikasturteko ikastaroetan izena emateko epea irekiko da.

Ikastaro ugari

Hainbat ikastaro eta ekintza eskaintzen ditu Zentro Zibiko-

ak Lasarte-Oriako emakumeentzat.

Batuka, esku lanak, frantsesa, mantentze gimnasia edo tai-chi egiteko aukera dago eta ikasturteko lehenengo hiru hilabetean inauterietako kompartsa prestatzea.

Interesatuak daudenak irailaren 10era arte dute ikastaro-etako informazioa eskatu eta inskripzioa egiteko.

Izena emateko astean joan beharko da Zentro Zibikora, goizez, 9:30etatik 13:00etara eta arratsaldean, 15:00etatik 20:00etara. •

Udako ordutegia

Uztailaren 1etik aurrera, udalaren kirol instalazioetan udako ordutegia egingo da.

Kiroldegian, astelehenetik ostiralera, 7:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 22:00etara egingo da irekia. Igerileku, berriz, 7:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 21:30era eta sauna 9:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Larunbata eta jai egunetan, kiroldegia eta igerilekua 9:00etatik 13:00etara. Sauna itxita egingo da. Iganetan kiroldegia itxita egingo da.

Kirol guneari dagokionez, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 21:00etara egingo da irekia, larunbatean goizez egingo da 9:00etatik 13:00etara eta igandean itxita dago.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info



Iñigo Arluziaga eta Imanol Bardaji txapelketako garaileek antolatzaileekin argazkia atera zuten.

Bardaji-Arluziaga bikotea Santa Anako irabazle berriro ere

- Nahiz eta Martin eta Odriozola aurretik joan, partidari buelta eman zion bikote irabazleak
- Hirugarren postua Begiristain anaientzat izan zen

Aurten ere, Iñigo Arluziaga eta Imanol Bardaji ditugu Santa Ana pala txapelketako irabazleak.

Bigarren urtea da bikote honek txapela jazten duena, baina aurten lan egin behar izan dute garaipena lortzeko.

Bernaitz Odriozola eta Shanti Martinen aurka jokatu zuten finala. Partida berdindu izan zen eta tanto luzeak ikusi ziren.

Odriozola eta Shantik aurre hartu zuten behin baino gehiagotan, baina bikote irabazleak berdintzea lortzen zuten.

Partidako azkeneko zatian ordea, Odriozola eta Martin 21-22 aurretik zihoazela, Arluziagak bikotearen pisua hartu eta buelta eman zion partidari hamar bat puntuko errenta lortuaz. Azkenean, 35-25 izan zen fineko markagailua.

Anaien arteko lehia

Hirugarren postuko partidari, Begiristain anaiei eta Azkonobieta anaiei arteko lehia ikusi zen. Izan ere, Eneko Iradik Ibon Azkonobietaren bikoteak ezin izan zuen parte hartu eta Aitor Azkonobieta aritu zen bere lekuan.

Begiristain anaiek erraz hartu zuten aurre markagailuan eta errenta mantendu zuten partida amaieraraino. Azken emaitza 35 eta 20 izan zen.

Zozketa

Finala amaitzean, Santa Ana pala txapelketako zozketa egin zen. Zerbaki sarituak honako hauek dira: 1go saria, 218 zerbakia; bigarrena, 56zb. eta hirugarrena 478 zb.

Hamabost egun daukate zerbakien jabeek Etxezarreta harategira hurbildu eta saria eskuratzeko. •



Hirugarren postuko lehia anai bikoteen arteko norgehiagoka ikusi zen.



Erketzeko lagunek agurra dantzatu zuten partida gogorra hasi baino lehen.



Tanto luzeak ikusi ahal izan ziren Santa Anako finaleko partidari.



Iñigo Arluziagari finaleko jokalaria onenaren saria eman zioten antolatzaileek.



Herritar ugari bildu zen Michelingo fabrika ondoko pilotalekuan Santa Ana pala txapelketako finala ikustera.